



ULTZAMAKO UDALA

Alkate anderea

M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenetxea

Zinegotziak:

M^a Purificación Etxeberria Iztueta

Nicasio Doray Bengoechea

Martín Picabea Aguirre

Lourdes Aranguren Barbería

Pedro Román Erviti Garaicoechea

Mikel Herranz Oiz

Pedro M^a. Oyarzun Baraibar

Francisco Perez Arregui

UDALAREN OSOKO BILKURAREN DEIALDIA


M^a Aranzazu Martínez Urionabarrenecheak, Ultzamako udalaren alkateak, Udal honen zinegotzia zaren aldetik, udal osoaren OHIKO bilkurara DEI EGITEN DIZU. Bilkura 2017ko AZAROAREN 9an egingen dugu, **OSTEGUNAREKIN**, udaletxeko areto nagusian, 19:30ean lehen deialdian eta 20:00etan bigarreanean.

Era berean jakinarazten dizut, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legeak bere 78. artikulua 2. paragrafoan xedatzen duenez, Gai-zerrendako gaien agiri guztiak zinegotzien eskura izanen direla udaletxean deialdia egiten den egunetik beretik.

Etortzerik ez baduzu, etortzea eragozten dizun BIDEZKO ARRAZOIA egiaztatu behar duzu, toki araubideari buruzko indarreko arauak horri dagokionez adierazten duten erantzukizunaren pean ez erortzeko.

Hau jakinarazten dizut, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan, Larraintzarren (Ultzamako Bailara), bi mila eta hamazazpiko AZAROaren 3an.

M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenetxea
Alkate anderea





GAI-ZERRENDA

- 1.- *Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.*
2. *Hasiera batez onestea abeltzaintzako mindan oinarriturik argindarra ekoizteko Iraizozko (Utzama) 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpilurzatian kokaturiko plantaren eta Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Orokietako kontzejuetan dauden minda digerituak biltegitratzeko lau hobiren administrazio kontzesioaren kontratuarekin loturiko aktiboen balorazioa eta geroko Bioenergia Ulzama SA enpresaren aldeko likidazioa.*
3. *Hasiera batez onestea 2018. urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa.*
4. *“2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana.Ultzamako adarraren loturarako kanalizazio proiektua” proiektu teknikoa onestea, CIMA Ingenieros estudioak egina eta Ultzamako Udalak eta NASERTIC enpresa publikoak lankidetzan sustatua.*
5. *Honako proiektu honen obren Finantza Plana onestea: “2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana. Ultzamako adarraren loturarako kanalizazio proiektua”, “Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioen programan” sarturik dagoena.*
6. *Elordi industrialdean dagoen eta katastroko 188-12 lurzatiari dagozkion 258,00 m2ko soberako lurzati, Ultzamako Udalaren jabegokoa, besterentzeko espedientea onestea, IGNACIO ESQUISABEL HERNANDEZen alde, harekin muga egiten duen lurrari eransteke (Talleres Elordi SL enpresako nabea).*
7. *Behin betiko onestea jabari publikoko ondasunak desafektatzeari buruzko espedientea: izozteko hiru motor, Udaleko Biogas Plantako abeltzaintzako mindan oinarriturik gasa eta elektrizitatea produzitzeko zerbitzu publikoarekin loturikoak.*
8. *NILSA eta Ultzanueta zerbitzuen Mankomunitatearekin sinatu beharreko hitzarmena onestea, Ultzamako udalerrian dauden Gerendiaingo Errota eta Iraizozko Elordi Industrialdea lotzeko saneamendu lanak egiteko.*
9. *Nafarroako Elikagaien Bankuari egin beharreko ekarpena.*
10. *Azaroaren 25 emakumeenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunari buruzko adierazpen amankomun atxikimendua emateko*
11. *Alkatetzaren informazioak.*
12. *Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 191.ebazpenetik 215.era.*
13. *Eskaerak eta Galderak.*